

Esp. kodea: 2024LERA0003

Gaia: MONDRAGON CITY CHALLENGE 2024-2025

Titularra: IAKES AGUIRREZABAL IRIBAR

CM GIPUZKOA SL-REN ETA ARRASATEKO UDALAREN **ARTEKO HITZARMENA**

Arrasate, 2024ko apirilaren 26an

ELKARTU DIRA

Alde batetik, MAIDER MORRAS andrea (NAN 15398277F), alkate modura jardungo duena, ARRASATEKO UDALAREN izenean eta ordezkaritzan.

Bestetik, JAKES AGIRREZABAL IRIBAR (NAN: 72454730S) CM Gipuzkoa S.L.ren izenean (helbidea: Mikeletegi Pasealekua 1, 20009 Donostia; IFK: B20753208). Entitate horren gerente gisa jardungo du.

Bi aldeek agiri hau egiteko behar adina gaitasun aitortzen diote elkarri, eta ondorengo adierazpenak egin dituzte:

ADIERAZPENAK

I.- CM Gipuzkoa SL sozietatearen helburua da kudeaketa eta koordinazio komertziala, publizataria eta sustapenekoa egitea, zentzurik zabalenean hartuta. Bera da, hain zuzen ere , "MONDRAGON CITY CHALLENGE" ekimenaren antolatzaile nagusia.

Mondragon City Challenge Ekintzailatza Kooperatiboko Nazioarteko Lehiaketa da. 2021ean burutu zen lehen edizioa eta ekintzailatza kooperatiboko jokaerak sustatzea eta gazteei eredu kooperatiboaren balio bereizgarriak hurbiltzea du helburu, partaideak eredu horretan oinarritutako proiektuak garatzera bultzatuz. Lehiaketa hau bi urtetik behin antolatzen da.

Era berean, lehiaketa bera gazteen artean ezagutzera emateko asmoz eta bide batez, ekintzailatza eta balio kooperatiboak zabaltzen jarraitzeko, "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailatza kooperatiboko topaketa" antolatu ohi da lehiaketa antolatzen ez den urteetan. 2022an topaketa honen lehen edizioa izan ondoren, 2024an bigarren edizioa.

II- Aurreko puntuan deskribatutako jarduera egiteko, CM Gipuzkoa SL enpresak erakunde publikoen zein pribatuen laguntza ekonomikoa behar du.

Kodea	CL24/06128	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AYQJ.P.660c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AYQJP.660c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				

Esp. kodea: 2024LERA0003

Gaia: MONDRAGON CITY CHALLENGE 2024-2025

Titularra: IAKES AGUIRREZABAL IRIBAR

III.- Ekimenean parte hartzen dute kolaboratzaile gisa hurrengo erakunde publiko eta pribatuak: Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Konfekoop, Mondragon Taldea eta Mondragon Unibertsitatea.

Aldi berean laguntzaile gisa hurrengo erakunde eta enpresek hartzen dute parte: Kooperatiben Aliantza Internazionalak, Asekoop-ek, Azaro Fundazioak, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarreak, Saiolanek eta Garaiak.

IV.- Arrasateko Udalak bere egitekoen artean ditu udalerriko garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea. Helburu horiek betetzeko programa desberdinak garatzen ditu, batzuetan zuzenean kudeatzekoak, bestetan ehun sozioekonomikoko beste eragile batzuekin elkarlanean, herriko bilakaera sozioekonomikoan positiboki eragin dezaketen balioak indartu aldera, hala nola, ekintzailetasuna edo eta kooperazioa.

V.- "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailatza kooperatiboko topaketa"-k, kooperatibismoaren eta ekintzailatzaren kulturaren gazteria hezten duen heinean, Arrasateko Udalaren helburu sozio-ekonomikoekin bat dator, beraz, bien arteko elkarlanak udalerriko sustapen sozioekonomikoan eta Arrasate herriaren kanpora begirako proiektioan positiboki eragin dezake.

VI.- Aurrekoa ikusita, erakunde biek elkarri hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna aitortzen diote, ondoko klausulen arabera:


KLAUSULAK

LEHENA.- CM Gipuzkoa SL enpresak "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailatza kooperatiboko topaketa" antolatzeke konpromisoa hartzen du, bera baita antolatzailer nagusia, adierazpenetan jasotako gainerako kolaboratzaileekin batera.

Arrasateko Udalak "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailatza kooperatiboko topaketa" egitasmoa burutzen lagunduko dio CM Gipuzkoa SLri, hartara bitarteko batzuk jarritz. Arrasateko Udaleko Hezkuntza eta Enplegu Saila izango da lankidetzak honetarako sail arduraduna.

BIGARRENA.- Aurreikuspena da "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailatza kooperatiboko topaketa"-ren bigarren edizioa 2024an zehar burutzea.

Kodea	CL24/06128	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1AYQJ.P.660c		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AYQJP.660c		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitzez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			





Esp. kodea: 2024LERA0003

Gaia: MONDRAGON CITY CHALLENGE 2024-2025

Titularra: IAKES AGUIRREZABAL IRIBAR

HIRUGARRENA.- "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailletza kooperatiboko topaketa" bigarren edizioaren antolatzaile nagusi gisa, CM Gipuzkoa SL bere baliabideen bidez arduratuko da 2024an burutuko den ekimenaren egitaraua gauzatzeko lan guztiak egiten. Egitarau-aurreikuspena hau da:

- Ekintzaileen eta ikasleen topaketa ekitaldi bat antolatzea
- Ekintzailletza kooperatiboari buruzko gehigarriak prentsan ateratzea, urtean zehar.
- Ekintzailletza kooperatiboko kasu zehatzei buruz erreportajeak prentsan, urtean zehar.

LAUGARRENA.- CM Gipuzkoa SL enpresak, "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailletza kooperatiboko topaketa" bigarren edizioko antolatzaile nagusi gisa, une oro eskura izango ditu ekitaldia egiteko hartzen diren eskubide eta baimen administratibo guztiak.

CM Gipuzkoa SL-k eta Arrasateko Udalak era koordinatuan egin eta izapidetuko dituzte beharrezkoak diren tramiteak, agintaritza instantzia eskudunen aurrean, CM Gipuzkoak egitarauari buruz adierazitako jarduerak kokatzeko eta antolatzeko lokal edo lur publikoen erabilera beharrezkotzat jotzen den neurrian.

BOSGARRENA.- Egitarauari buruz egingo den publizitatean, Arrasateko Udalaren lankidetzak aipatu beharko da, korporazio-irudiaren araudiarekin bat etorriz (aurkezpenak, prentsaurrekoak, gehigarri berezien argitalpena, kanpaina informatiboak, estaldura informatiboa, Arrasateko markaren presentzia euskarrietan...).

Proiektua aurrera ateratzeko beharrezkoak diren diru ekarpen publiko edo pribatuen kudeaketa CM Gipuzkoaren ardura eta zeregina da, eta beste inork ezingo du proiektu honen izenean ekarpen ekonomikorik eskatu berari dagokion ekarpenaren zama arintzeko asmoz.

SEIGARRENA.- Arrasateko Udalak proiektuko ekintza publiko guztietan parte hartuko du.

ZAZPIGARRENA.- Arrasateko Udalak honako bitarteko material hauek CM Gipuzkoa SLren eskuetan jarriko ditu, kosturik gabe:

Ekipamendu publikoak: Kultureteko Areto Nagusia, Kultureteko bilera gelak, Amaia Antzokia, Herriko Plaza edo eta beste hirigune batzuk, aurreikusitako ekintzak burutzeko egokiak irizten direnak.

Kodea	CL24/06128	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AYQJ.P.660c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AYQJP.660c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitzez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				

Esp. kodea: 2024LERA0003

Gaia: MONDRAGON CITY CHALLENGE 2024-2025

Titularra: IAKES AGUIRREZABAL IRIBAR

ZORTZIGARRENA.- Topaketa kooperatiboaren bigarren edizioko 2024an gauzatuko den ekimena burutzeko egitarauaren aurrekontua 38.500€koa da, kontzeptu hauetan banatuta:

Kontzeptua	Inportea
Idazkaritza teknikoa	6.000,00€
Ekitaldiaren produkzioa	5.000,00€
Prentsako gehiagarri monografikoak	19.500,00€
Prentsako agerpen serieak	8.000,00€
GUZTIRA	38.500 €

Aurrekontu hori finantzatzeko, hainbat eragileren ekarpenak aurreikusten dira:

Erakundea	Inportea
Mondragon Taldea	5.000,00
Arrasateko Udala	10.000,00
Konfekoop	7.500,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	10.000,00
Kooperatiben Kontseilu Gorena	5.000,00
Mondragon Unibertsitatea	2.500,00
GUZTIRA	40.000 €

BEDERATZIGARRENA.- Arrasateko Udalak 10.000 euroko dirulaguntza bideratuko dio CM Gipuzkoa Slri, "MONDRAGON CITY CHALLENGE - Ekintzailletza kooperatiboko topaketa" bigarren edizioko 2024ean burutuko den lehiaketa finantzatzen laguntzeko, 2024ko Udal Aurrekontuko "1.0710.471.241.30.00 2024 Ekintzailletza Sariak Mondragon City Challenge" kontusailaz baliatuta.

Ordainketa 2 zatitan egingo da:

- 1) %50 ordainduko da hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera, CM Gipuzkoak aurkeztu eta gero agiri bana egiaztatzen egunean dituela zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- 2) %50 proiektua amaitzean, CM Gipuzkoa SL.k exekuzio-memoria eta likidazio-ekonomikoa aurkeztu ondoren. Exekuzio-memoriak jasoko du 2024an zehar burututako ekintzen azalpena, eta hala badagokio, horien testigantza grafikoak (argazkiak, prensa iragarki zein bestelako agerpenak...). Likidazio ekonomikoak jasoko ditu gutxienez eduki hauek: gastuen eta diru sarreraren laburpen-taula, gastuen fakturen kopiak, eta diru sarreraren egiaztagirak.

Kodea	CL24/06128	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AYQJ.P.660c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AYQJP.660c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				

Esp. kodea: 2024LERA0003

Gaia: MONDRAGON CITY CHALLENGE 2024-2025

Titularra: IAKES AGUIRREZABAL IRIBAR

Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu aurrekontua baino txikiagoa bada, diru laguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori, benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko. Likidazioan aurkeztu daitezken gastuak hornitzaileen fakturak eta lan taldearen orduak dira. Komunikazio kanpainari dagokionez, talde berdinekoak diren entitateen fakturak aurkeztu ahal izango dira, beti ere komunikazio ekintza guztien agiriak aurkeztuz eta aplikatzen diren prezioak merkatuko prezioak direla bermatuz.

Kasu honetan ere, diru-laguntzaren bigarren zatia ordaindu aurretik, erakunde onuradunak egiaztatu beharko du egunean dituela zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

HAMARGARRENA.- Jarduerarekin lotutako mezu idatziak (kartelak, eskuko programak, gonbidapenak, deialdiak, prentsa-iragarkiak, publizitatea...) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbuespen batekin: ekitaldiaren publizitatea Euskal Herrikan kanpoko komunikabideen bidez egiten bada (El Diario Montañés, La Rioja, Sud Ouest, etab.). Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita baldin badaude, euskarari lehentasuna emango zaio bai kokapenean (euskarazkoa gaztelaniazkoaren gainetik) bai eta neurrietan (letren tamaina handiagoa izango da euskaraz).

Ahozko komunikazioetan (aurkezleak, megafoniako mezuak, irratikoak, giro musika...) euskarari lehentasuna emango zaio. Gaztelania erabiltzea beharrezkoa bada, lehendabizi euskaraz emango da mezua. Twitter, Facebook... eta halako sare sozialetan bi hizkuntzak erabiliko dira.

HAMAIKAGARRENA.- Beste aldearen berariazko baimenik gabe, hitzarmen hau sinatzen dutenek ezingo dizkiote bere zeregin, eskubide edo betebeharrak beste edonori pasa, ez errentan, ez usufruktuan eta ez beste edozein modutan.

HAMABIGARRENA.- Hitzarmen honetan eta orohar azaroaren 17ko 38/2003, Dirulaguntzen Lege orokorrean jasotako betebeharrak betetzen ez badira, obligazioak bete dituen aldeak beste aldeari eskatu ahalko dio aipatu 38/2003 Legean eta agiri honetan aurreikusitakoa betetzeko. Dena den, obligazio horiek betetzen ez badira, alde betetzailerak alde ez-betetzailerari eskaini ahalko dio hitzarmen hau bukatzeko, eta hori, kalte-galeren konpentsazio gisa egin daitezkeen ekintzei utzi gabe.

HAMAHIRUGARRENA.- Diru-laguntza hau beste diru-laguntza batzuekin bateragarria izango da. Hala ere, dirulaguntza gehiago izan ezker, ekimenaren finantzaketa muga egindako gastuaren %100 izango da, hau da, Udalaren diru laguntzarekin ezin izango da, inondik ere, gainfinantzaketarik egon.

Kodea	CL24/06128	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AYQJ.P.660c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AYQJP.660c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitzez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				

Esp. kodea: 2024LERA0003

Gaia: MONDRAGON CITY CHALLENGE 2024-2025

Titularra: IAKES AGUIRREZABAL IRIBAR

Horri dagokionez, eta diru laguntzak emateko udal akordioetan, berariaz, bestelako doitze edo erregularizazio sistemarik ez bada adierazten, Udalak, diru laguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gainfinantzaketarik gertatu ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru sarreren arabera, eta, hala badagokio, gerta daiteke ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak.

Maidor Morras
Arrasateko Alkatea

Jakes Agirrezabala
CM Gipuzkoako zuzendaria

Kodea	CL24/06128	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AYQJ.P.660c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AYQJP.660c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				